

67/2024 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Hezkuntzako Zuzendari Nagusiarena, "Zinema euskaraz 2024-25" hezkuntza-programaren deialdia onartzen duena Nafarroako A, B eta D eredueta-ko ikastetxeetan eskolatutako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, 2024-25 ikasturtean.

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalak txosten bat aurkeztu du, eta proposatzen du deialdi hori onartzea, gehienez 5.000 plazarekin, areto komertzialetan berariaz antolatutako euskarazko saio zinematografikoetarako.

Programaren helburua da gure inguruko euskarazko ikus-entzunezko produktuen kontsumo arduratsua sustatzea, gaur egungo gazteen artean informazio-iturri, entretenimendu eta kontsumo kulturalaren iturri nagusia den eta ikasle gazteenen artean entretenimendurako sarbidea den aldetik. Programa horren bidez, euskarazko filmak edo hizkuntza horretara bikoiztuak eskaini nahi dira, baldin eta horiek pedagogikoki landu badaitezke ikasgelan, emanaldiaren ondoren edo aurretik. Programak hautatutako filmak eskainiko ditu. Film horiek hainbat balio sustatu beharko dituzte, hala nola elkartasuna, familia, animaliekiko eta ingurumenarekiko errespetua eta eskola-jazarpenaren gaitzespena.

Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 245/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1. "Zinema euskaraz 2024-25" hezkuntza-programaren deialdia onartzea, Nafarroako A, B eta D ereduetako ikastetxeetan eskolatutako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Programa 2024-25 ikasturtean egingo da, eta Ebazpen honen Eranskinean dago deskribatuta.

2. Ebazpen hau eta bere eranskinak www.educacion.navarra.es (Hezkuntzako Berriak) eta www.navarra.es (Tramiteak) helbideetan argitaratzeko agintzea.

3. Deialdi honen eta berau aplikatzeko administrazio-egintzen aurka, gora jotzeko helegitea aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako Kontseilariari, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi, argitaratu edo jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

4. Ebazpen hau Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari eta Euskara Atalari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita lauko martxoaren 6an.

HEZKUNTZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Gil Sevillano González